

Ebazpena: R 17/2022

Espedientea: 31/2018

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landin eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

CPYDCDESLUK (aurrerantzean, CPCE) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruz. Gatazka horren helburua da 2007. urtean jasanarizatako eta GFARI ordaindutako BEZaren kuota batzuk itzultzeko eskumena zehaztea, hasierako eragiketaren 2014ko ebazpena dela-eta, Arbitraje Batzordean izapidetzen ari baita, 31/2018 espediente zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- CPCE erakundeak, 2007an, GFARI soilik ordaintzen zizkion zergak; izan ere, Gipuzkoan zuen zerga-egoitza eta 2006an ez zuen gainditu 6.000.000 euroko eragiketa-bolumena.

2007ko apirilaren 10ean hiru higiezin eskualdatu zituen E herrian (Malaga), 360.607,12 euroko prezio unitarioan.

CPCEk adierazten du prezio horretan sartuta dagoela jasanarazitako % 7ko BEZa, 23.591,12 eurokoa. Horrela, CPCEk adierazten duenez, jasanarazitako BEZ osoa 70.773,36 eurokoa da.

Eskrituren azterketatik ondorioztatzen denez, hiru orube saldu ziren, eta saltzaileak banakako beste hainbeste eraikin eraikitze konpromisoa hartu zuen. Prezioa honela ordaindu behar zen: % 10, sinatzean; % 10, 12 hilabetera, eta % 80, eraikinak entregatzean (18 hilabeteko epea aurreikusten zen amaitzeko). BEZa entregatzean sortuko zen, ordainketa aurreratuetarako xedatutakoa izan ezik. Hala, teorian, 2007an kontratuak sinatzean sortutako BEZa 7.077,42 eurokoa izan behar zen (2.359,14 euro etxebizitza bakoitzean). Kontratuak aurreikusten zuenez, erosleei egotz dakiekeen arrazoiren batengatik kontratua suntsiaraziz gero, jasanarazitako BEZaren zenbatekoak atxikitze ahalmena izango zuen saltzaileak.

2.- Salmenta horren ondorioz, 2008an Estatuari bakarrik ordaindu zizkion zergak.

3.- 2011ko ekainaren 1ean eta 2an berritze-eskriturak eman ziren, eta azken ordainketa, % 80koa, 2014ko ekainaren 2ra arte atzeratu zen.

Eskritura horiek aztertuta ondorioztatzen da 12 hilabetera ordaindu behar zen zenbatekoa (salmenta-prezioaren % 10) 2008ko urriaren 24an (% 5) eta 2009ko ekainaren 29an (gainerako % 5a) ordaindu zela. Teorian, data horietan jasanarazi behar zen zegokion BEZa, ordainketak aurreratzeko arauen arabera.

4.- 2014ko apirilaren 30ean, CPCEk egoitza fiskala E-ra aldatu zuen. Ekitaldi horretan, egoitza fiskalari zegokion administrazioari bakarrik ordaindu behar zizkion zergak, 2013an 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu ez zuelako.

2014ko ekainaren 20an, *“salerosketa suntsiarazteko eta suntsiarazpen-baldintza ezeztatze eskriturak”* eman ziren; horien arabera, 2007ko salmenta eraginik gabe geratu zen, besterentze-prezioaren azken epemuga, % 80koa, ez ordaintzeagatik.

Ordaindutako zenbatekoa itzuli zion saltzaileak erosle bakoitzari (prezioaren % 20), BEZa barne (72.122,28 euro), hitzartutako zigorrak kenduta (39.538 euro). Zenbateko garbitik, saltzaileak 4.718,28 euro atxiki zituen, kobratutako aurrerakinek jasanarazitako BEZarekin bat datorren kopurua, gutxi gorabehera, faktura zuzentzaileak jaulki ondoren Ogasunak zenbateko horren itzulketa edo konpentsazioa onartuko zuelakoan.

5.- CPCEk Estatuari ordaindu zizkion zergak 2014an, eta, ekaineko autolikidazioan, ustez jasanarazitako 70.773,36 euroko kuotak zuzentzeko eskatu zuen.

Egiaztapen mugatuko prozedura baten ondorioz, ZAEAk likidazioa eman zuen, eta likidazio horretan adierazi zuen ez zuela eskumenik jasanarazitako kuoten zuzenketa zuzenbidearekin bat zetorren argitzeko.

CPCEk berraztertze-errekurtsoa eta, ondoren, erreklamazio ekonomiko administratiboa jarri zituen, baina ezetsi egin ziren, itzulketa GFari zegokiolakoan.

ZAEAREN jarrera 10/2009, 11/2009 eta 12/2009 Ebazpenetan ezarritako Arbitraje Batzordearen doktrinan oinarritzen da, bai eta Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko epaian (ECLI:ES:TS:2010:4013) eta 2010eko ekainaren 17ko epaian (ECLI:ES:TS:2010:4101) ezarritako jurisprudentzian ere.

Geroago, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zen Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusian.

6.- 2018ko maiatzaren 2an, CPCEk kuotak itzultzeko eskatu zion GFari, baina ukatu egin zitzaion, eta berraztertze-errekurtsoa jarri zuen, baina hura ere ezetsi zen. Zergapekoak erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu zuen ondoren, eta horren ebazpena etenda dago, oraingo gatazkatik eratortzen denaren zain.

GFAREN jarreraren oinarriak hauek dira:

- a) Eragindako kuota ez da 70.773,36 eurokoa, 14.154,84 eurokoa baizik (4.718,28 euro higiezin bakoitzeko).

b) Lehenengo ordainketari dagokion % 10eko jasanarazpena ezin da bidegabeko diru-sarreratzat hartu.

c) Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak ondorioa jasan duena legitimatzen du itzulketa eskatzeko, eta, beraz, CPCEk ez du legitimaziorik.

7.- 2018ko urriaren 3an, CPCEk gatazka negatiboa jarri zuen Arbitraje Batzordean, kontratua suntsiaraztearen ondorioz indarrrik gabe geratu diren jasanarazitako BEZaren kuotak itzultzeko eskumena argitzeko.

8.- Hasierako alegazioen izapidea eman zaie demandatutako administrazioei, eta, espedientea agerian jarri ondoren, azken alegazioen izapidea alderdi guztiei.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Ituneko 66.Bat artikulua ezartzen du Arbitraje Batzordearen eginkizunak hauek direla:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari

dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea”.

Kasu honetan, ZAEAk ondo adierazten duen bezala, Itunaren interpretazioari buruzko Administrazioen arteko desadostasun baten aurrean gaude.

2.- Gatazka negatiboari buruz.

EIABEaren 13.3 artikulua hau dio: *“Beste kasu batzuetan, ezein administraziok bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako hilabeteko epean bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergapekoak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin”.*

3.- Arbitraje-prozeduraren eta prozedura judizialaren arteko bateraezintasunari buruz.

Ekonomia Itunaren 66. artikuluan ezarritako Arbitraje Batzordearen eskumena eksklusiboa eta baztertzaila da; beraz, Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusian

ebazteke dagoen prozedura judiziala eten behar da, arbitraje-ebazpenaren ondorioz.

Izan ere, Auzitegi horrek ezin ditu eztabaidatu Arbitraje Batzordeak ezartzen dituen Ekonomia Itunaren inguruko eskumen- eta interpretazio-gaiak, Batzorde horren ebazpenen aurka Auzitegi Gorenean baino ezin baita errekurtsorik jarri.

4.- CPC Eren jarrera.

Zergapekoaren ustez, jasanarazitako BEZaren kuoten zuzenketa zerga-oinarria aldatzea dakarten inguruabarrak gertatzen direnean egin behar da.

BEZari buruzko 37/1992 Legearen 80. Bi artikulua honako hau ezartzen du:

“Zergapetutako eragiketak ebazpen irmo, judizial edo administratibo bidez edo zuzenbidearen edo merkataritza-usadioen arabera erabat edo partzialki ondoriorik gabe geratzen direnean, edo eragiketa egin ondoren prezioa aldatzen denean, zerga-oinarria dagokion zenbatekoan aldatuko da”.

Horren ildotik, BEZari buruzko Legearen 89. Bat artikulua arabera:

“Jasanarazitako zerga-kuotak zuzendu beharko dituzte subjektu pasiboek, kuota horien zenbatekoa oker zehaztu denean edo, lege honen 80. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga-oinarria aldatzea dakarten inguruabarrak gertatu direnean.

Kuotak behar ez bezala zehazteko arrazoiak antzematen direnean edo aurreko lerrokadan aipatutako gainerako inguruabarrak gertatzen direnean egin beharko da zuzenketa, betiere eragiketari dagokion zerga sortu zenetik edo, hala badagokio, aipatutako 80. artikuluan jasotzen diren inguruabarrak gertatu zirenetik lau urte igaro ez badira”.

Sortutako BEZaren kuota horiek berreskuratzeko mekanismoa 89.Bost artikuluan jasotzen da, honako hau ezartzen baitu:

“Kuoten zuzenketak hasieran jasanarazitako kuotak handitzea badakar eta alde zuzenetik errekerimendurik egin ez bada, subjektu pasiboak aitorpen-likidazio zuzentzailea aurkeztu beharko du, eta horri bidezkoak diren errekargua eta berandutze-interesak aplikatuko zaizkio, Zergei buruzko Lege Orokorraren 26. eta 27. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, zuzenketa lege honen zerga-oinarriaren aldaketa 80. artikuluan ezarritako arrazoiengatik gertatzen bada edo zuzenbidean oinarritutako akats baten ondorio bada, subjektu pasiboak dagokion aldea sartu ahal izango du zuzenketa egin behar den aldiko aitorpen-likidazioan.

Zuzenketak hasieran jasanarazitako kuotak gutxitzea badakar, subjektu pasiboak bi aukera izango ditu:

a) Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 120.3 artikuluan eta hura garatzeko araudian aurreikusitako autolikidazioak zuzentzeko prozedura hastea Zerga Administrazioaren aurrean.

b) Zerga-egoera erregularizatzea zuzenketa egin behar den aldiari dagokion aitorpen-likidazioan edo ondorengoetan, urtebeteko epean, zuzenketa hori egin behar zen unetik hasita. Kasu horretan, subjektu pasiboak soberan jasanarazitako kuoten zenbatekoa itzuli beharko dio eragiketaren hartzaileari”.

Bestalde, Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorraren 120.3 artikulua honako hau dio:

“Zergapeko batek uste badu autolikidazio batek kalte egin diela nolabait bere bidezko interesei, zuzentzeko eskatu ahal izango du arau bidez ezarritako prozedurari lotuta.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz zergapekoari zerga-arautegiaren arabera itzulketa egin behar bazaio eta likidaziorik egin gabe sei hilabete pasatu badira eta horren kausa Zerga Administrazioari egotzi ahal bazaio, honek itzuli beharreko kopuruaren berandutza-interesak (lege honen 26. artikuluan aipatuak) ordaindu beharko ditu; zergapekoak ez du edukiko interesok ordaintzeko eskatu beharrik. Ondore horietarako, sei hilabeteko epea autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen denetik hasiko da zenbatzen edo, ordurako amaituta badago, autolikidazioa zuzentzeko eskaera aurkezten denetik.

Autolikidazio baten zuzenketaren ondorioz bidegabe sartutako kopuru bat itzuli behar bada, Zerga Administrazioak haren berandutza-interesak ordainduko ditu, lege honen 32. Artikulua 2. apartatuan adierazitakoari lotuta”.

CPCERen iritziz, TLOaren 221. artikuluan arautzen diren kasuetako batean ez dagoenez, ezin da bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko eskaeraren prozedura erabili; beraz, zuzenketa egiten den aldiari dagokion autolikidazioan erregularizazioa eskatzeko aukera baino ez da geratzen.

Alde horretatik, TLOaren 221. artikulua hau xedatzen du:

“Bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko eskubidea aintzatesteko prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, honako kasu hauetan:

- a) Zerga-zorren edo zehapenen ordainketa birritan egiten denean.*
- b) Ordaindutako zenbatekoa administrazio-egintzatik edo autolikidaziotik sortutakoa baino handiagoa denean.*
- c) Preskribatze-epeen ondoren ordaintzen direnean zerga-zorrei edo -zehapenei dagozkien kantitateak. Lege honen 252. artikuluan xedatutako borondatezko erregularizazioan ordaindutako zenbatekoak ez dira inolaz ere itzuliko.*

d) Tributu-araudiak horrela jasotzen duenean”.

5.- ZAEAREN JARRERA.

ZAEAREN iritziz, aplikagarria da 10/2009, 11/2009 eta 12/2009 ebazpenetatik eratorritako Arbitraje Batzordearen doktrina, 2010eko ekainaren 10eko (ECLI:ES:TS:2010:4013) eta 2010eko ekainaren 17ko (ECLI:ES:TS:2010:4101) epaien ondoriozko Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak berretsi baitzituen.

Aurrekari horien arabera, zergapeko batek zerga eskusiboki bere egoitza fiskalari dagokion administrazioari ordaintzen dionean (aurreko urtean 6.000.000 euro edo 7.000.000 euro –2007ko urriaren 27tik 2017ko abenduaren 29ra bitartean aplikagarria– baino gutxiagoko eragiketa-bolumena izan duelako), eta egoitza hori foru-lurraldetik lurralde erkidera edo alderantziz aldatzen bada, ez zaizkio ordainarazteko eskumena duen administrazio berriari helaraziko konpentsatzeko edo itzultzeko falta diren BEZAREN saldoak, horrek aurreko administrazioa bidegabe aberastea eragingo lukeelako.

BEZA berehalako sortzapeneko zerga denez, eta Auzitegi Gorenak zergaldia zatikatzeko baimena eman duenez, zehaztu behar da sortzapena 2007an gertatu zela, ordainketarik eza 2014ko ekainaren 2an gertatu zela, eta ebazpena 2014ko ekainaren 20an eman zela; egoitza-aldaketa, berriz, 2014ko ekainaren 30era arte ez zen gertatu.

Hori dela eta, bai sortzapenaren unean (2007), bai ebazpenaren unean (2014ko ekainaren 20a) zergapekoak GFARI ordaintzen zion eskusiboki, eta, beraz, hari

eskatu behar dio itzulketa. Horretarako, 2014ko ekaineko bi autolikidazio aurkez ditzake, bata GFARI zuzendua eta bestea ZAEARI.

6.- GFAREN JARRERA.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gatazka ez onartzeko eskatu du, haren iritziz ez gaudelako Ekonomia Itunaren 66. artikuluko kasuetako batean, eta, beraz, Arbitraje Batzordearen eskumen-eremutik kanpo dagoelako.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gatazka ez onartzeko eskatu du, 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arbitraje Batzordearen Araudiaren 9. artikuluari jarraikiz, honako hau xedatzen baitu:

“Ez da inola ere aurkeztu ahal izango gatazkarik justizia-epaitegien aldetik jada ebatzita dauden edo oraindik ebatzteke dauden gaiei buruz”.

GFARI adierazten du ezen CPCEk 2014ko maiatzaren 13an aldatu zuela egoitza “soziala”, eta hori egoitza fiskalarekin bat datorrela jotzen dela; beraz, ekainean zergapekoa Estatuaren eskumenekoa zela dio.

GFAREN iritziz, ZAEARI EIBEAREN 15.2 artikulua araberan egin behar zuen itzulketa, hau xedatzen baitu:

“Harik eta eskumen-gatazka ebatzen ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita

administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitraje Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako”.

GFAk uste du ez dela aplikagarria BEZaren saldoak (BEZ “*motxilak*” deiturikoak) lekualdatzeari buruzko jurisprudentzia, ez delako egoitza-aldaketaren aurretik sortu den jasandako BEZaren saldoa, eta BEZaren oinarrien aldaketa hirugarren batek kontratua ez betetzearen ondorioz gertatzen delako.

GFAk jurisprudentzia aurkeztu du, Ekonomia Itunaren interpretazioan eta aplikazioan edozein finantza-irizpide baztertzen duena.

7.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

7.1.- Kontratu-azterketa.

CPCEn eta erosleen artean sinatutako kontratuen arabera, 2007an ordainketa aurreratuari zegokion BEZa baino ez zen sortu, hau da, 7.077,42 euro (2.359,14 etxebizitza bakoitzean).

BEZ hori GFAn sartu zela suposatzen da, nahiz eta GFAk itzulketa ukatzeko ebazpenean adierazten duen zergapekoak ez duela ordainketa egiaztatu.

2008an egindako ordainketaren ondorioz, ordainketa aurreratuari zegokion BEZa sortu zen, hau da, 3.538,66 euro (1.179,55 euro etxebizitza bakoitzean). BEZ hori Estatuari ordaindu behar zitzaion.

2009an egindako ordainketaren ondorioz, ordainketa aurreratuari zegokion BEZa sortu zen, hau da, 3.538,66 euro (1.179,55 euro etxebizitza bakoitzean). Zergapekoak ez du adierazten zein administraziori ordaintzen zion zerga 2009an.

7.2.- Kontratu-azterketaren eta gatazka planteatzeko idazkiaren arteko desadostasuna.

Zergapekoak, gatazka planteatzeko idazkian, adierazten du 70.773,36 euro jasanarazi zituela (23.591,12 euro etxebizitza bakoitzeko) eta GFARI sartu zizkiola.

Kasu horretan, 7.077,42 euro (2.359,14 euro etxebizitza bakoitzeko) zor zen diru-sarrera izango zatekeen, eta gainerakoa (63.695,94 euro) bidegabeko diru-sarrera.

Egia zera da; badirudi 2014an sinatutako suntsiarazpen-kontratuak berresten duela zergapekoak 2007an ez zuela 70.773,36 euroko kopurua jasanarazi; izan ere, jasota dagoenez, ordaindutako BEZa atxikitzen dio erosle bakoitzari, 4.718,28 euroko zenbatekoarekin, eta hori bat dator, gutxi gorabehera, ordaindutako aurrerakinengatik jasanarazi beharko zatekeen BEZarekin.

7.3.- Helbide-aldaketarik egon ezean bidezko diru-sarrerekin jarraitu beharko litzatekeen prozedurari buruz.

Oro har, prozedura ez da izango bidegabeko sarrerak itzultzeko prozedura, baizik eta zerga-oinarria aldatzeko prozedura, baldin eta, ebazpen judicial edo administratibo irmo baten bidez, edo, zuzenbidearen edo merkataritza-usadioen arabera, osorik edo partzialki ondoriorik gabe geratzen badira zergapetuta dauden eragiketak, horiek egin ondoren.

Zerga-oinarriaren aldaketa bidezkoa izan dadin, erabakigarria ez da merkantziak itzultzea, entrega-eragiketa suntsiaraztearen ondorio baita, baizik eta eragiketa ondoriorik gabe geratzea.

Era berean, eragiketak suntsiaraztea ez dakarten eragiketak ez-ordaintzeak ez du zerga-oinarria aldatzen.

Tributuen Zuzendaritza Nagusiaren 2010eko maiatzaren 31ko ko Kontsulta Loteslearen arabera, lotutako eragiketa bat suntsiarazten denean (adibidez, higiezin baten salerosketa, eskuratzailleak egindako ordainketak itzuliz), saltzaileak egindako jasanarazpena zuzendu behar du, eta bere zerga-egoera erregularizatu aldiari dagokion aitorpenean edo hurrengoetan, lau urteko epera arte; halaber, jasanarazitako gehiegizko zenbatekoa itzuli behar dio hartzaileari.

Erosleak ordaindutako zenbatekoak itzultzeak ez dakar lotutako eragiketarik egitea, bere garaian ordaindu zen prezioa itzultzea baizik. Inguruabar horietan, ez da tributu-eragineko egintzarik egin behar, nahiz eta itzulketak barne har

dezakeen jasanarazi den zerga osoa (TZNaren 2011ko azaroaren 5eko eta 2011ko irailaren 20ko kontsulta lotesleak).

Jasanarazitako kuotak zuzentzeko epea lau urtekoa da, zuzenketa eragin zuten inguruabarrak gertatu zirenetik zenbatzen hasita, hau da, eragiketa suntsiarazi zenetik (TZNaren kontsulta loteslea, 2013ko martxoaren 5ekoa). Zerga-oinarria zuzentzeko epearen hasiera aldaketa hori eragin duten inguruabarrak gertatzen diren unetik hasiko da kontatzen.

7.4.- Egoitza-aldaketa dela-eta 2014ko ekaineko BEZaren autolikidazioa zatikatzeari buruz.

Auzitegi Gorenaren 2010eko ekainaren 10eko (ECLI:ES:TS:2010:4013) eta 2010eko ekainaren 17ko (ECLI:ES:TS:2010:4101) epaiek gatazka hau konpontzeko esanguratsuak diren alderdi hauek adierazten dituzte:

- Ekonomia Itunaren arabera, BEZaren autolikidazioen zatikagarritasuna onar daiteke, egoitza fiskala aldatzen denean eta, hain zuzen ere, hori bada (aurreko urtean 6.000.000 euroko edo, hala badagokio, 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu ez duelako) ordainarazpenaren eskumena zehazten duen lotura-puntua.
- Zergapekoak egoitza lurralde batean (foralean edo erkidean) zuenean sorrarazi badira, ezin da jasandako BEZaren kuotarik lekualdatu egoitza fiskalaren aldaketaren ondorioz eskumena duen administrazio berrira; izan ere, horrek Ekonomia Itunean araututako ordainarazpen-eskumena aldatuko luke (ordainarazpen hori aurreko une batean jasandako kuoten

konpentsazioaren bidez gutxituko litzatekeelako), eta BEZaren kuotak ordaindu zirenean eskuduna zen administrazioa bidegabeki aberastea ekarriko luke.

- Horrek esan nahi du zergapekoak autolikidazio bana aurkeztu behar diela administrazioei, eta horietako bakoitzean sartu, hurrenez hurren, egoitza aldatu arte eta egoitzaren aldaketatik aurrera sortutako eragiketak, BEZa berehalako sortzapeneko zerga dela kontuan hartuta.

Gogoratu behar da jurisprudentzia hori ordainarazpen-eskumenaren lotura-puntu erabakitzaile bakarra egoitza fiskala denean bakarrik dela aplikagarria, eta, beraz, ezin da tributazio-kasuetara estrapolatu eragiketen bolumenaren proportzioan, proportzioa % 100ekoa izan badaiteke ere administrazio bakar baten alde.

Bada, mugitzen ari garen eremuan, BEZaren saldoak suntsikorrak direla ondorioztatu behar dugu, hau da, aitorten batean sortutako eta jasandako BEZaren saldoak sartzen direnean eta aldea, positiboa edo negatiboa, bestealdi batzuetara aldatzen denean, ezin da jakin azken horien ondoriozko saldoa une batean edo bestean sortutako kuotei dagokien, eta are gutxiago, eragiketa baten edo bestearen ondorioz sortutakoak diren.

Horregatik, autolikidazio batean zerga-oinarria aldatzen denean, eragiketa bat suntsiaraztearen ondorioz sortutako BEZa murriztuta, nahasketa bat gertatzen da eragiketa horren ondoriozko saldoaren eta autolikidazio berean sartutako gainerakoaren artean, eta, beraz, ez dago eragozpenik zuzenketa hori egoitza-aldaketa baten ondoriozko autolikidazio zatikatuan sartzeko.

7.5.- CPCEren egoitza fiskala aldatzea.

Zergapekoak 2014ko ekainaren 30ean aldatu zuen egoitza fiskala.

GFA aldatetarekin ados ez badago edo haren ondorioak egoitza sozialaren aldaketa argitaratu zen egunera arte atzeratu nahi baditu, egoitza aldatzeko prozedura hasi behar zuen, eta ZAEARI proposamena egin.

7.6.- Ondorioa.

Zergapekoak GFARI aurkeztu behar dio 2014ko ekaineko autolikidazioa (egoitza-aldaketa zergaldiaren azken egunarekin bat datorrelako), 2007, 2008 eta 2009an egindako ordainketa aurreratuei bakarrik dagokien zerga-oinarriaren aldaketa barne.

Gainerakoa, BEZA jasanarazi bada 2007. urteko salmenta osoagatik, bidegabeko sarrerak itzultzeko aurreikusitakoaren arabera izapidetu beharko litzateke.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea GFari dagokiola CPCEn 2014ko ekaina ordainarazteko eskumena, eta hor sartu behar dela 2007, 2008 eta 2009an ordaindutako aurrerakinei dagozkien kuoten zuzenketa; jasanarazitako gainerako BEZ kuotak, berriz, 2007an ordaindu izana egiaztatzen bada, bidegabeko sarrerak itzultzeko prozedura baten bidez eskatu beharko dira.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta CPCEn jakinaraztea.